Zerbitzuek hazkunde erritmoa %2,1eraino leundu zuten, azken bederatzi hiruhilekoetako tasak apalena. Pandemiaren osteko jardueren irekierak ohiz kanpo handitu zuen zerbitzuen eskaria, eta pixkanaka maila ohikoagoetara itzultzen ari da, ekonomia osoaren hazkundearekin bat datozenetara. Bilakaera hori merkataritza, ostalaritza eta garraioko jarduerak barne hartzen dituen taldean nabarmentzen da bereziki, duela urtebete %20 inguruko tasetan hazten baitzen, eta orain %2,9raino apaldu baita, oraindik ere ekonomiaren batez bestekoaren oso gainetik, baina moteltzeko joera nabarmena erakutsiz. Sektore publikoari gehien lotutako jarduerek (administrazio publikoa, hezkuntza, osasuna eta gizarte zerbitzuak), oro har, %2,1 egin zuten gora balio erantsia, azken urte eta erdiko hazkunderik handiena. Azkenik, gainerako zerbitzuek ere moteldu egin zuten aldakuntza tasa, eta %1,4an kokatu zen, EAEko ekonomiak aldi horretan izandako batez besteko baliotik oso hurbil.

Turismoarekin lotutako zerbitzuen bilakaera onak udako hilabeteetan jarraitu du. Zehazki, EAEko aireportuak joan-etorrietaiko erabili zituzten pertsonen kopurua %19,9 igo zen bigarren hiruhilekoan, eta %17,5 uztaileko eta abuztuko batez bestekoan, eta errekor historikoak ezarri ziren bi hilabete horietako bakoitzean. Era berean, hotel establezimenduetako gaualdiak %11,2 gehitu ziren bigarren hiruhilekoan, eta oraindik ere nolabaiteko gorakada izan zuten uztailean eta abuztuan, ia %6,0ko igoera izan baitzuten, 800.000 gaualdi baino gehiagorekin hilabete bakoitzean.

BPGak bigarren hiruhilekoan izandako moteltzea ez zen lan merkatura hedatu, eta horrek aurrerapen nabarmena erakutsi zuen. Hala, enplegua, lanaldi osoko lanpostu baliokideetan neurrtuta, %1,5 hazi zen aldi horretan, aurreko hiruhilekoko tasa bera. Horren ondorioz, 14.000 lanpostu garbi inguru sortu dira azken urtean. Eustatek 2021erako

La falta de nuevos pedidos está afectando a las expectativas del sector, que empeoran a medida que pasan los meses. El índice de clima industrial sitúa la llegada del pesimismo en el tramo final de 2022, pero se ha ido intensificando a lo largo de los primeros meses de este año, aunque recientemente tiende a estabilizarse. Las opiniones sobre la cartera de pedidos han empeorado de forma rápida, en especial en los meses de julio y agosto. Sin embargo, las opiniones sobre la tendencia de la producción muestran unas oscilaciones importantes, pero sin señalar una clara tendencia al empeoramiento. Por último, el stock de productos terminados sin vender se ha reducido rápidamente, dado que las empresas se han dedicado a sacar adelante los pedidos antiguos, a falta de nuevos encargos.

La construcción aceleró su tasa de variación del valor añadido hasta situarlo en el 4,2% interanual, muy por encima del dato del trimestre anterior (0,9%). De los dos componentes del sector, la obra civil es la que muestra un mayor dinamismo en estos momentos. Por su parte, la edificación también ha registrado incrementos muy elevados de su actividad. Sin embargo, las fuertes subidas de los tipos de interés están afectando ya a la venta de viviendas, tanto a las usadas como a las de nueva construcción, que cayeron del orden del 18% en el segundo trimestre, el peor resultado desde el inicio de la pandemia.

Los servicios suavizaron su ritmo de crecimiento hasta el 2,1%, la tasa más modesta de los últimos nueve trimestres. La apertura de actividades tras la pandemia incrementó de forma inusualmente elevada la demanda de servicios, que poco a poco está volviendo a niveles más habituales y más acordes con el crecimiento del conjunto de la economía. Esta evolución se aprecia especialmente en el grupo que engloba a las actividades de comercio, hostelería y transporte, que hace un año crecía a tasas próximas al 20% y ahora se ha moderado hasta el 2,9%, todavía muy por encima de la media de la economía, pero mostrando una notable desaceleración. Por su parte, las actividades más ligadas al sector público (administración pública, educación, sanidad y servicios sociales), en conjunto, aumentaron su valor añadido un 2,1%, el mayor incremento del último año y medio. Por último, el resto de servicios también moderó su tasa de variación y se situó en el 1,4%, muy cerca del valor medio registrado por la economía vasca en el periodo.

La buena marcha de los servicios relacionados con el turismo se mantiene en los meses de verano. En concreto, el número de personas que utilizó para sus desplazamientos los aeropuertos de la comunidad autónoma aumentó un 19,9% en el segundo trimestre y un 17,5% en la media de julio y agosto, estableciendo récords históricos para cada uno de los dos meses. De igual manera, las pernoctaciones en establecimientos hoteleros aumentaron un 11,2% en el segundo trimestre y todavía mostraban cierto impulso en los meses de julio y agosto, en los que anotaron una subida de casi el 6,0%, con más de 800.000 pernoctaciones en cada mes.


La moderación registrada por el PIB en el segundo trimestre no se trasladó al mercado de trabajo, que volvió a mostrar un significativo avance. Así, el empleo, medido en puestos de trabajo equivalentes a tiempo completo, creció en el periodo un 1,5%, la misma tasa que registró en el trimestre anterior. Eso se traduce en la creación de unos

eta 2022rako egindako kalkulu berriak milioi bat lanposturen zifra urrundu du, eta egungo guztizkoa 980.000 emplegu baino gehixeagotan kokatu du. Lanpostu berri horietako asko zerbitzu jardueretan lortu dira (12.000 baino pixka bat gehiago), eta industria, berriz, beste 2.000 eman ditu, nahiz eta balio erantsiak beherakada txiki bat izan duen aldi horretan. Bestalde, eraikuntzaren jardueran garrantzitsuak ez zuen eskulan gehiago behar izan, eta haren enpleguak ez zuen aldaketarik izan aurreko urteko zifrarekin alderatuta.

14.000 empleos netos en el último año. La nueva estimación del Eustat para los años 2021 y 2022 aleja la cifra del millón de puestos de trabajo y sitúa el total actual en algo más de 980.000 empleos. Gran parte de esos puestos de trabajo nuevos se han conseguido en actividades de servicios (algo más de 12.000), mientras que la industria ha aportado otros 2.000, a pesar de que su valor añadido tuvo un ligero descenso en el periodo. Por su parte, la importante actividad de la construcción no necesitó de más mano de obra y su empleo se mantuvo sin variaciones respecto a la cifra del año anterior.

Enpleguaren bilakaera Urte arteko aldakuntza tasak

Kontu ekonomikoak



Cuentas económicas

Evolución del empleo Tasas de variación interanual

Afiliazioa



Afiliación

Iturria: Eustat eta Gizarte Segurantza.

Fuente: Eustat y Seguridad Social.

BJA inestak emandako informazioaren arabera, 16 eta 64 urte bitarteko biztanleriaren emplegu tasa (biztanleria potentzialki aktiboa delakoa) %70,1era igo zen, azken urteetako tasak handienera. Interesgarria da azpimarratzea bi sexuek beren tasak hobetu zitzutela, batez ere emakumeek, %67,1era iritsi baitziren, nahiz eta oraindik gizonen tasa berdintzeko (%73,1) sei puntura dauden.

Aitzitik, partaidetza tasa zertxobait apaldu da, bai aurreko hiruhilekoaren aldean, bai aurreko urteko hiruhileko beraren aldean. Hain zuzen ere, 2023ko bigarren hiruhilekoan tasa orokorra %56,1ekoa izan zen, lehen hiruhilekoan baino bi hamarren gutxiago eta duela urtebete erregistratutako baino lau gutxiago. Beraz, inkesta horren arabera, ez da hautematen pertsona berri asko sartu direnik lanmerkatuan, nahiz eta enplegu sorerra garrantzitsua izan eta lanpostua bilatzeko pizgarria izan ohi den. Emakumeen kasuan, lan merkatuko partaidetza tasa %51,9koa izan zen, aurreko urtearen aldean aldaketarik gabe; gizonen kasuan, berriz, tasa hori %60,6koa izan zen, 2022ko balioa baino ia puntu bat txikiagoa.

Kontu ekonomikoek adierazten duten erritmo egonkorrean sortutako enpleguak jarraipena izan du jadanik igaro diren hirugarren hiruhilekoko hilabeteetan, Gizarte Segurantzako afiliazioak argitaratutako informazioaren arabera. Zehatzmehatz adierazita, bigarren hiruhilekoan afiliazioen kopuruaren batez besteko hazkundeak %1,6koa izan zen,

La información ofrecida por la PRA indica que la tasa de ocupación en la población entre 16 y 64 años, que se suele denominar como población potencialmente activa, aumentó hasta el 70,1%, la tasa más elevada de los últimos años. Es interesante resaltar que ambos sexos mejoraron sus tasas respectivas, en especial las mujeres, que llegaron hasta el 67,1%, aunque todavía están a seis puntos de igualar la tasa de los hombres (73,1%).

En sentido contrario, la tasa de actividad se ha moderado ligeramente tanto respecto al trimestre anterior como respecto al mismo trimestre del año anterior. Así, en el segundo trimestre de 2023 la tasa global fue del 56,1%, dos décimas menos que en el primer trimestre y cuatro menos que la registrada hace un año. Por tanto, según esta encuesta, no se aprecia una incorporación significativa de nuevas personas al mercado de trabajo, a pesar de que la creación de empleo es importante y suele ser un incentivo para buscar un puesto de trabajo. En el caso de las mujeres, la tasa de participación en el mercado laboral se situó en el 51,9%, sin cambios respecto al año anterior, mientras que en el caso de los hombres dicha tasa fue del 60,6%, casi un punto por debajo del valor de 2022.

La creación de empleo a un ritmo estable que indican las cuentas económicas ha tenido continuidad en los meses ya transcurridos del tercer trimestre, a tenor de la información publicada por la afiliación a la Seguridad Social. En concreto, el incremento medio del número de afiliaciones en el segundo trimestre fue del 1,6%, una cifra muy similar

Ianpostuetarako kontu ekonomikoetan zenbatetsitako %1,5aren oso antzekoa baita; eta uzaileko eta abuztuko batez bestekoa, berriz, %1,7koa izan zen. Afiliazioaren hazkunde egonkor eta iraunkor hori zerbitzuetan lortzen da batez ere, %2,0 inguruan hazten baitira, baina industriak ere ekarpen esanguratsua egiten du (%1,0), batez ere kontuan hartzen bada balio erantsia eta ekoizpena murrizten ari direla.

Enpleguaren gorakadak eta lan merkatuan jende gehiago sartu ez izanak langabeziaren jaitsiera nabarmena ekarri dute. 2023ko bigarren hiruhilekoan, langabezia tasa %7,4 izan zen, 2008ko amaieratik izandako zifrarik txikiesten baita. Sexuaren arabera, aldeak nabarmen murriztu dira; beraz, emakumeen langabezia tasa %7,6koa da orain, gizonena baino lau hamarren bakarrik handiagoa. Bestalde, enplegu bulegoetako erregistroen arabera, udako hilabeteetan langabeziaren beherakadak bere horretan jarraitzen du, baina erritmoa arindu egin da, -%4,5era iritsi arte.

BPGaren urte arteko aldakuntzak (%1,5) eta enpleguarenak (%1,5) iradokitzen dute bigarren hiruhilekoan ez zela itxurazko produktitatearen hobekuntzarik lortu. Emaitza hori urrun dago 2021ean eta 2022an eskuratu ziren hiru puntu inguruko irabaziekin eta aldagai horren erregistro historikoarekin (%1,0). Industriako produktitatearen jaitsierak (-%1,6) azaltzen du ezohiko emaitza hori, eraikuntzak ohiko batez besteko balioa (%0,4) baino askoz ere irabazi handiagoa izan zuen arren (%3,9). Bestalde, zerbitzuak (%0,3) ez ziren asko aldendu azken hogeita zazpi urteetako batez besteko irabazietatik.

al 1,5% estimado por las cuentas económicas para los puestos de trabajo, mientras que la media de los meses de julio y agosto fue del 1,7%. Este aumento estable y sostenido de la afiliación se consigue fundamentalmente en los servicios, que crecen en el entorno del 2,0%, pero también la industria hace una aportación significativa (1,0%), en especial si se tiene en cuenta que tanto su valor añadido como su producción se están reduciendo.

El aumento en el empleo y la falta de nuevas incorporaciones al mercado laboral han contribuido a un notable descenso del paro. En el segundo trimestre de 2023, la tasa de paro se situó en el 7,4%, la cifra más baja desde finales de 2008. Por sexo, las diferencias se han reducido claramente, de manera que la tasa de paro de las mujeres es ahora del 7,6%, tan solo cuatro décimas por encima de la de los hombres. Por otro lado, los registros de las oficinas de empleo indican que la reducción del paro continúa en los meses de verano, aunque el ritmo se ha suavizado ligeramente, hasta el -4,5%.

La variación interanual del PIB (1,5%) combinada con la del empleo (1,5%) sugieren que en el segundo trimestre no hubo ninguna mejora de la productividad aparente. Esto contrasta con las ganancias de cerca de tres puntos que se consiguieron en 2021 y 2022, y con el registro histórico de esa variable (1,0%). El descenso de la productividad en la industria (-1,6%) explica ese inusual resultado, a pesar de que la construcción consiguió una ganancia (3,9%) muy superior a su valor medio habitual (0,4%). Por su parte, los servicios (0,3%) no se desviaron mucho de su ganancia media de los últimos veintisiete años.

2.3. Barneko eta kanpoko eskaria
Demanda interna y externa

Eskariaren ikuspegitik, bigarren hiruhilekoko ezaugarri nagusia kango saldoaren norabide aldaketa da, lehen hiruhilekoan lau hamarreneko ekarpen positiboa egitetik bigarrenean BPGaren hazkundeari hiru hamarren kentzera igaro baitzen. Zazpi hamarren horiek ia erabat justifikatzen dute EAEko ekonomiak bigarren hiruhilekoan izandako moteltzea. Inguruko ekonomietan nabari den ahuleziak nazioarteko merkataritzaren bilakaera baldintzatu du, esportazioen eta importazioen balioak 2021ean eta 2022an, batez beste, eskuratu ziren bi zenbakiko hazkunde tasetatik ezagutzen den azken hiruhilekoko urte arteko jaitsiera txiki batzuetara murriztuz.

Desde el punto de vista de la demanda, la característica a destacar del segundo trimestre es el cambio de signo del saldo exterior, que pasó de realizar una aportación positiva de cuatro décimas en el primer trimestre a detraer al crecimiento del PIB tres décimas en el segundo. Estas siete décimas justifican casi en su totalidad la desaceleración vivida por la economía vasca en el segundo trimestre. La debilidad que se aprecia en las economías del entorno ha condicionado la evolución de los intercambios internacionales, reduciendo los valores de exportaciones e importaciones desde los dos dígitos de crecimiento que se registraron de media en 2021 y 2022 a unos pequeños descensos interanuales en el último trimestre conocido.

	Eskariaren aldagaiak		Variables de la demanda					
	Urte arteko aldakuntza tasak		Tasas de variación interanual					
	2021	2022	2022		2023			
BPG erreala	6,0	5,4	6,5	4,8	3,4	2,3	1,5	PIB real
Gastua azken kontsumoan	5,1	6,0	6,3	6,2	4,4	1,9	1,5	Gasto en consumo final
- Familien gastua kontsu.	5,8	7,7	8,7	8,0	5,1	1,7	1,3	- Consumo de los hogares
- AA.PP. kontsumoa	3,2	0,7	-1,7	0,8	2,2	2,4	2,0	- Consumo de las AA. PP.
Kapital eraketa gordina	5,9	8,7	10,4	9,9	4,8	1,6	2,5	Formación bruta de capital
- Ekipamendu ondasunak	11,1	7,1	8,6	7,5	3,2	2,4	0,9	- Bienes de equipo
- Gainontzeko inbertsioa	2,8	9,6	11,6	11,4	5,9	1,1	3,5	- Resto de inversión
Barne eskaria	5,3	6,7	7,2	7,1	4,5	1,8	1,7	Demanda interna
Esportazioak	10,7	17,1	22,4	16,8	8,6	6,3	-2,5	Exportaciones
Importazioak	9,4	18,7	22,9	20,6	10,2	5,5	-2,0	Importaciones

Iturria: Eustat.

Fuente: Eustat.

Bestalde, barne eskariak hazkunde erritmoaren egonkortasunaren irudia eman zuen, %1,7ko hazkundea izan baitzen, aurtengo hasieran baino hamarren bat gutxiago bakarrik. Agregatuaren egonkortasun horrek bilakaera kontrajarriak ezkutatzen ditu bere bi osagai nagusietan, azken kontsumoa apaldu egin baita, eta kapital eraketa gordina, ordea, emaitza nabarmen hobetu baitu, nahiz eta jarduera ekonomikoa inguratzan duen ziurgabetasuna handia den. Azken kontsumoko gastuari dagokionez, bi atalek bilakaera paraleloak izan zituzten eta biek hazkunde erritmoa lau hamarrenetan leundu zuten. Administrazio publikoen gastuaren kasuan, oraindik ere gorakada nabarmena hauteman da, %2,0 hazi baita, ekonomiaren batez bestekoa baino puntu erdi gehiago eta aldagai horrek 2022an lortutako batez besteko balioa baino puntu bat baino gehiago lortu du.

Familien kontsumoak moteldu egin zuen bere hazkunde erritmoa, lehen hiruhilekoko %1,7tik bigarreneko %1,3ra. Kontsumoko prezioen igoera handiak, elikagaienak bereziki, familien eroskeko ahalmena higatu du. Gainera, hipoteken garestitzeak kontsumorako izan litezkeen diru

Por su parte, la demanda interna ofreció una imagen de estabilidad en el ritmo de crecimiento, al registrar un incremento del 1,7%, tan solo una décima menos que en el inicio del año. Esta estabilidad del agregado esconde evoluciones contrapuestas en sus dos componentes principales, con un consumo final que se modera y una formación bruta de capital que mejora sustancialmente su resultado, a pesar de la incertidumbre que rodea la actividad económica. En lo referente al gasto en consumo final, los dos apartados que lo forman tuvieron evoluciones paralelas y ambos suavizaron en cuatro décimas su ritmo de crecimiento. En el caso del gasto de las administraciones públicas, todavía se aprecia un impulso notable, al crecer un 2,0%, medio punto por encima de la media de la economía y más de un punto por encima del valor medio alcanzado por esta variable en el año 2022.

El consumo de los hogares moderó su ritmo de crecimiento desde el 1,7% del primer trimestre hasta el 1,3% del segundo. La fuerte subida de los precios de consumo, en especial de los alimentos, ha erosionado el poder adquisitivo de las familias. Además, el encarecimiento de

sarreren zati bat desbideratu du. Hala ere, enpleguaren sorerra jarraituak eta soldaten igoerek ahalbidetzen dute kontsumo pribatua EAEko ekonomia osoa baino pixka bat bakarrik gutxiago haztea.

las hipotecas detrae parte de los ingresos que podrían destinarse al consumo. Sin embargo, la creación sostenida de empleo y las subidas salariales están permitiendo que el consumo privado crezca a un ritmo tan solo ligeramente inferior al del conjunto de la economía vasca.

Kontsumo eta inbertsio adierazleak		Indicadores de consumo e inversión						
Urte arteko aldakuntza tasak		Tasas de variación interanual						
		2021	2022	2022	2023			
Kontsumoa						Consumo		
Azalera handi. salmentak	0,2	-1,3	-1,1	-0,9	-2,2	-0,3	0,6	Ventas grandes superfic.
Txikizkako merkat. indizea	3,5	2,9	5,3	1,4	0,2	1,9	1,1	Índ. comercio minorista
Kontsumo ond. ekoizpena	12,0	4,5	3,5	2,9	3,2	3,0	1,5	Produc. bienes consumo
Kontsumo ond. importazioa	20,0	17,6	48,3	16,1	1,1	15,5	-6,9	Import.bienes consumo
Turismoen matrikulazioa	-19,7	-8,8	-9,8	-11,1	-0,5	18,7	1,7	Matriculación de turismos
Inbertsioa						Inversión		
Ekipo ond. ekoizpena	13,3	9,4	13,0	4,1	5,9	5,4	-0,5	Produc. bienes equipo
Ekipo ond. importazioa	21,1	21,3	23,5	26,8	16,2	26,3	7,9	Import.bienes equipo
Zama ibilgailuen matrik.	7,0	-13,5	-23,5	-21,3	22,8	8,3	19,5	Matricul. vehículos carga
Etxebizitza berri. bisatuak	39,6	-13,7	-34,9	3,1	-22,2	-39,7	---	Visados nuevas viviendas
Lizitazio ofiziala	63,2	40,7	-19,7	108,9	69,2	17,6	-5,2	Licitación oficial

Iturri: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten, Aduanen, Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioaren, Seopanen eta Trafiko Zuzendaritzaz Nagusiaren datuetan oinarrituta

Fuente: Elaboración de la Dirección de Economía y Planificación según datos del Eustat, Aduanas, Ministerio de Transportes Movilidad y Agenda Urbana, Seopan y DGT.

Kapital eraketa gordinak hobekuntza nabarmena izan zuen emaitzan, hazkunde tasa %2,5 bizkortu baitzen, aurreko hiruhilekoan lortutakoa baino ia puntu bat gehiago, baina joan den urtean zehar lortutako ezohiko emaitza handietatik urrun. Agregatua osatzen duten bi osagaien artean, ekipamendurako inbertsioak honako faktore hauek pairatu zituen: industria sektorea inguratzen duen ziurgabetasuna, bai EAEko ekonomian bai inguruko ekonomietan; interes tasek izan duten igoera azkarra, edozein proiektu berriren kostuak garestitu eta errentagarritasuna murritzten duena; eta kanpo eskariaren ahultasuna. Aurreko guztien ondorioz, atala %0,9 hazi zen, hau da, aurreko hiruhilekoan baino 1,5 punto gutxiago. Aitzitik, gainerako inbertsioa, eraikuntzan egindakoa barnean hartzen duena, %3,5 hazi zen, aurreko hiruhilekoko emaitza ahula atzean utzita. Atal horri mesede egin dio eraikuntza jardueraren hedapenak, bai eraikinetan bai, bereziki, obra zibilean, nahiz eta etxebizitzen salmentaren balaztak eragina izan dezakeen hurrengo aldiak datuetan.

Lehenago ere adierazi den bezala, EAEko ekonomiak bigarren hiruhilekoan izan duen moteltzearen zati handiena kanpo saldoak BPGaren hazkundeari ekarpen txikiagoa egitearen ondorio izan da. Hain zuzen ere, termino

La formación bruta de capital registró una mejora sustancial de su resultado al acelerar su expansión un 2,5%, casi un punto más de crecimiento que el trimestre anterior, aunque lejos de los inusualmente elevados resultados obtenidos a lo largo del pasado año. De entre sus dos componentes, la inversión en equipo sufrió las consecuencias de la incertidumbre que rodea al sector industrial, tanto en la economía vasca como en las economías del entorno, de la rápida elevación de los tipos de interés, que encarece los costes de cualquier proyecto nuevo y reduce su rentabilidad, y de la debilidad de la demanda exterior. Como resultado, el apartado se incrementó un 0,9%, es decir, 1,5 puntos menos que en el trimestre previo. Por el contrario, el resto de la inversión, que incluye la realizada en construcción, aumentó un 3,5%, dejando atrás el débil resultado del periodo anterior. Este apartado se ha visto favorecido por la expansión de la actividad constructora, tanto en edificación como, especialmente, en obra civil, aunque el freno a la venta de viviendas puede afectar a los datos de los próximos periodos.

Como se ha comentado, la mayor parte de la desaceleración de la economía vasca en el segundo trimestre fue consecuencia de la menor aportación del saldo exterior al crecimiento del PIB. Más en detalle, en

errealetan, EAEko ondasun eta zerbitzuen kanpo esportazioak (Estatuko gainerakoak eta atzerrikoak) %2,5 murriztu ziren aurreko urtearen aldean, zortzi hiruhilekotan hazkunde tasa handiak eskuratu ondoren. Bestalde, importazio errealak %2,0 jaitsi ziren urte batetik bestera. Balio nominaletan, esportatutako zenbatekoa 15.694 milioi eurokoa izan zen, eta importatutakoa, berriz, 16.390 milioi eurokoa, %1,0ko eta %0,4ko jaitsierekin, hurrenez hurren, prezio igoeren moteltze testuinguru batean.

Esportazio gehienak atzerrira bideratu ziren ondasunak izan ziren. Atal honek 8.134 milioi euroko langa gainditu zuen bigarren hiruhilekoan, kopuru garrantzitsua baita, baina ez da iristen aurreko hiruhilekoetan lortutakoetara. Izan ere, atzerrira esportatutakoaren balioa aurreko urteko aldi bereko baino %11,0 txikiagoa izan zen. Kontuan hartu behar da Europako ekonomia nagusiek ere tasa negatiboak eskuratu zituztela bigarren hiruhilekoan, uztalean larriagotu egin direnak. Beraz, EAEko esportazioen ahultasun hori nazioarteko merkataritzaren dinamismoaren gutxiko testuinguru orokor baten barruan ulertu behar da.

Esportatutako produktuen araberako analisiak adierazten du jaitsieraren zati handi bat energiarengatzen gertatu zela. Talde horrek gorabehera handiak izaten ditu, nazioarteko merkatuen egoeraren arabera. 2022an, erregaien prezioek gora egin zuten urtean, salmenten zenbateko bikoitzu egin zen, eta, ondoren, 2023ko lehen erdian, salmenten balioa nabarmen murriztu da, neurri batean prezioen jaitsieragatik eta beste neurri batean salduak kopuru txikiagoagatik. Hala, aurtengo bigarren hiruhilekoan %38,6 produktu gutxiago saldu da, eta %59,6 jaitsi da salmenten balioa.

Beste aldetik, energiaz bestelako produktuen esportazioek ere portaera negatiboa izan zuten, eta atal horren guztizko balioa 2022ko bigarren hiruhilekokoa baino %6,9 txikiagoa izan zen. Kasu horretan, bolumenaren jaitsiera handia izan zen, baina zati batean prezioen igoera nabarmenarekin konpentsatu zen. Produktu talde gehienek urte arteko tasa negatiboak jaso zituzten. Horien artean, nabarmenzekoak dira produktu kimikoak jaitsiera (-%32), paperaren jaitsiera (-%20,9) eta metal arruntak eta beren manufakturen jaitsiera (-%20,8), EAEko egitura esportatzalean pisu handiena duen taldeetako bat. Aitzitik, positiboki baloratu behar da garraio-materialak lortutako hazkunde tasa (%8,0), automobilgintzak etorkizun zalantzagarriari aurre egin behar dion une honetan.

Esportazioak norako geografikoaren arabera aztertzetik gero, salmenten jaitsiera herrialde garatuetan zein gorabidean daudenetan gertatu zela ikus daiteke. Lehenengo kasuan, beherakada %10,3koa izan zen, eta bigarrenean, %15,1ekoa. Ildo horretan, ia ez da aldatu erremuen araberako banaketa; beraz, ELGAN sartzen diren herrialdeek guztizkoaren %85,5 jaso zuten eta garatzeko bidean dauden herrialdeek, berriz, gainerako %14,5.

Herrialde garatuen artean, euroaren eremua da berriz ere EAEko enpresen bezero nagusia, esportazio guztien %55,5 eskatu baitu. Eremu horretara salduako produktuen erdia baino gehiago bi ataletan biltzen da: garraio materiala eta metal arruntak eta horien manufakturak. Lehenengoak emaitza positiboa eskuratu zuen, urte arteko %4,4ko igoerarekin; bigarrenak, ordea, jaitsiera handia ezagutu zuen, %23,7koa. Garrantziari dagokionez hirugarren taldea denak ere, hau da, makinek eta aparatuak, beherakada

términos reales las exportaciones vascas de bienes y servicios al exterior (resto del Estado y extranjero) se redujeron un 2,5% respecto al año anterior, tras ocho trimestres de fuertes incrementos. Por su parte, las importaciones reales cayeron un 2,0% interanual. En valores nominales, el montante exportado fue de 15.694 millones de euros y el importado de 16.390 millones de euros, con descensos del 1,0% y del 0,4%, respectivamente, en un contexto de moderación de las subidas de precios.

La mayor parte de las exportaciones fueron bienes que se destinaron al extranjero. Este apartado superó los 8.134 millones de euros en el segundo trimestre, una cantidad importante, pero que no llega a las conseguidas en los trimestres anteriores. De hecho, el valor de lo exportado al extranjero fue un 11,0% inferior al del mismo periodo del año anterior. Hay que tener en cuenta que las principales economías europeas también registraron tasas negativas en el segundo trimestre, que se han agravado en el mes de julio. Por tanto, esta debilidad de las exportaciones vascas debe entenderse dentro de un contexto general de pérdida de dinamismo del comercio internacional.

El análisis por productos exportados indica que buena parte del descenso se produjo en el apartado energético. Ese grupo suele tener grandes oscilaciones, en función de la situación de los mercados internacionales. Tras duplicar el importe de sus ventas en 2022, año en el que los precios de los combustibles se dispararon, en la primera mitad de 2023 el valor de las ventas se ha reducido de forma considerable, en parte por el descenso de los precios y en parte por una menor cantidad vendida. Así, en el segundo trimestre de este año se vendió un 38,6% menos de producto, mientras que su valor se redujo un 59,6%.

Por su parte, las exportaciones de productos no energéticos también tuvieron un comportamiento negativo, con un valor total que fue un 6,9% inferior al del segundo trimestre de 2022. En este caso, el descenso en volumen fue importante, aunque se compensó parcialmente con una significativa subida de precios. La mayoría de los grupos de productos anotaron tasas interanuales negativas. Entre ellos, destacan el desplome de los productos químicos (-32,7%), el del papel (-20,9%) y el de los metales comunes (-20,8%), uno de los grupos con mayor peso en la estructura exportadora vasca. En sentido contrario, hay que valorar positivamente el incremento conseguido por el material de transporte (8,0%), en un momento en el que la automoción se enfrenta a un futuro incierto.

El análisis de las exportaciones según el destino geográfico indica que el descenso de las ventas se produjo tanto en los países desarrollados como en los emergentes. En el primer caso, la caída fue del 10,3% y en el segundo del 15,1%. En ese sentido, apenas ha variado la distribución por áreas, de manera que los países que se engloban en la OCDE recibieron el 85,5% del total, mientras que los países en vías de desarrollo compraron el 14,5% restante.

Dentro de los países desarrollados, la zona del euro vuelve a ser el principal cliente de las empresas vascas, al demandar el 55,5% del total. Algo más de la mitad de los productos vendidos a esa área se concentra en dos apartados: material de transporte y metales comunes y sus manufacturas. El primero obtuvo un resultado positivo, con un aumento interanual del 4,4%, mientras que el segundo registró un descenso importante, del 23,7%. El tercer grupo en importancia, las máquinas y aparatos, anotó también

izan zuen aurreko urtearen aldean, baina txikiagoa (-%8,9).

una caída respecto al año anterior, pero de menor entidad (-8,9%).

	Esportazioak produktuen arabera					Exportaciones por productos			
	Urte arteko aldakuntza tasak eta mila euro					Tasas de variación interanual y miles de euros			
	2021	2022	2022			2023			
GUZTIRA	23,0	26,8	23,8	19,0	21,2	-11,0	8.134.867	TOTAL	
Energetikoak	43,5	108,8	98,2	88,6	-13,2	-59,6	285.400	Energéticos	
Ez-energetikoak	22,0	22,2	18,4	15,0	24,1	-6,9	7.849.467	No energéticos	
Nekazaritzakoak	31,9	35,1	41,4	41,6	52,6	-1,6	523.072	Agrícolas	
Kimikoak	48,2	29,4	12,3	19,6	38,7	-32,7	223.351	Químicos	
Plastikoak eta kautxua	21,6	17,1	13,1	8,8	19,4	0,0	585.063	Plásticos y caucho	
Papera	21,6	31,9	38,3	24,6	10,4	-20,9	197.612	Papel	
Metal arruntak	34,1	27,3	16,8	8,2	4,3	-20,8	1.869.641	Metales comunes	
Makinak eta aparatuak	11,6	13,0	2,7	16,9	24,7	-3,3	1.531.617	Máquinas y aparatos	
Garraio materiala	14,5	18,5	23,8	9,0	37,9	8,0	2.353.719	Material de transporte	
Gainerakoak	29,1	31,2	34,3	37,3	26,2	-7,6	565.395	Resto	

Iturria:Eustat.

Fuente: Eustat.

Alemania izan zen EAEko enpresei eskaera gehien egin zizkien herrialdea, bere ekonomia atzeraldi txiki batean murgilduta dagoen arren. Guztira, Alemaniak 1.381 milioi euro balio zuten EAEko produktuak eskatu zituen, aurreko urtean baino %2,9 gutxiago bakarrik. Neurri handi batean, garraio materiala eskatu zuen, EAEko enpresek herrialde hartako automobilgintzarekin duten harreman estua indartzen duena. Atal horrek %4,8ko hazkundea izan zuen, makinerian lortutako %4,5aren antzekoa.

Frantziaren kasuan, esportazioak %14,6 murriztu ziren, 1.207 milioi euroraino. EAEko salmentak lau produktu taldetan banatuta daude, eta horien artean metalak eta beren manufakturak nabarmenzen dira, %26,3ko jaitsiera izan baitzuten. Beste talde nagusietako batek, makinak eta aparatuak, antzeko urte arteko negatiboa izan zuen (-%24,4). Aitzitik, jaitsierak nabarmen txikiagoak izan ziren beste bi talde nagusietan: garraio materiala (-%1,6) eta kautxua eta plastikoak (-%3,6), biak automobilgintzaren sektoreari lotuak.

Italiara bidalitako esportazioak %10,2 gutxitu ziren aurreko urteko emaitzarekin alderatuta eta 447 milioi euroa iritsi ziren guztira. Herrialde horretara bideratzen diren bi produktu talde nagusiek beherakada nabarmenak ezagutu zituzten. Hala, metal arruntek %21,7 murriztu zuten salduetako balioa, eta makinek eta aparatuak, berriz, %15,2. Merkatu horretan ere salbuespina izan zen garraio materiala, salmentak %10,7 handitu baitziren, ibilgailu automobilien emaitza onagatik.

Eurogunetik kanpo, AEBak dira jada EAEko enpresen

Alemania fue el país que mayor cantidad de pedidos hizo a empresas vascas, a pesar de que su economía se encuentra inmersa en una leve recesión. En total, desde Alemania se solicitaron productos vascos por un importe de 1.381 millones de euros, tan solo un 2,9% menos que el año anterior. En gran medida, se trató de material de transporte, que refuerza la estrecha relación que las empresas vascas tienen con la industria de la automoción de aquel país. Ese apartado registró un incremento del 4,8%, similar al 4,5% que se consiguió en maquinaria.

En el caso de Francia, las exportaciones se redujeron un 14,6%, hasta los 1.207 millones de euros. Las ventas vascas en ese mercado están muy repartidas entre cuatro grupos de productos, entre los que destacan los metales y sus manufacturas, que tuvieron un descenso del 26,3%. Otro de los grupos principales, el de las máquinas y aparatos, registró una interanual negativa de similar tamaño (-24,4%). Por el contrario, los descensos fueron significativamente menores en los otros dos grupos principales: material de transporte (-1,6%) y caucho y plásticos (-3,6%), ambos ligados al sector de la automoción.

Las exportaciones a Italia anotaron un descenso del 10,2% respecto al año anterior y totalizaron los 447 millones de euros. Los dos grupos de productos principales que se destinan a ese país conocieron caídas significativas. Así, los metales comunes redujeron su valor vendido un 21,7%, mientras que las máquinas y aparatos cayeron un 15,2%. También en ese mercado fue una excepción el material de transporte, que aumentó sus ventas un 10,7%, por el buen resultado de los vehículos automóviles.

Fuera de la zona del euro, los Estados Unidos son ya el

bezera nagusiak, Erresuma Batuaren aurretik. Herrialde amerikarrera 581 milioi euro balio zuten produktuak garraiatu ziren, aurreko urtean baino %4,4 gutxiago, nahiz eta merkatu horretako jaitsiera euroaren eremukoa baino txikiagoa izan. Nabarmendu behar da herrialde horrekiko harreman komertziala energia sektoreak osorik baldintzatzen zuela, baina gaur egun beste produktu batzuek hartu dutela lekukoa, bereziki automobilgintzak, herrialdeari egindako salmenta guztien %20 biltzen baititu, esportazioak hirukoitzu egin baitira.

principal cliente de las empresas vascas, por delante del Reino Unido. Al país americano se transportaron productos por valor de 581 millones de euros, un 4,4% menos que el año anterior, aunque el descenso en ese mercado es menor que el registrado en la zona del euro. Hay que destacar que la relación comercial con ese país ha estado muy condicionada por el sector energético, pero que actualmente son otros productos los que han tomado el relevo, en especial el automovilístico, que aglutina ya al 20% de todas las ventas al país, al haber triplicado las exportaciones.

	Esportazioen helburua		Destino de las exportaciones						
	Urte arteko aldakuntza tasak eta mila euro		Tasas de variación interanual y miles de euros						
	2021	2022	2022		2023				
			III	IV	I	II	II		
GUZTIRA	23,0	26,8	23,8	19,0	21,2	-11,0	8.134.867	TOTAL	
ELGA	23,9	27,1	26,1	19,2	25,0	-10,3	6.954.902	OCDE	
Europar Batasuna	25,9	27,3	24,6	18,0	16,6	-11,8	4.516.792	Unión Europea	
Alemania	13,4	22,2	20,6	19,9	19,2	-2,9	1.380.899	Alemania	
Frantzia	27,4	20,3	11,7	9,2	15,0	-14,6	1.207.454	Francia	
Italia	26,5	29,8	15,7	17,4	16,1	-10,2	447.078	Italia	
Erresuma Batua	26,2	17,0	7,1	14,7	41,2	-15,6	515.912	Reino Unido	
AEB	16,8	41,9	34,7	45,7	62,6	-4,4	581.398	Estados Unidos	
ELGATik kanpokoak	18,2	25,2	12,1	17,8	1,2	-15,1	1.179.965	No OCDE	

Iturria:Eustat.

Fuente: Eustat.

Produktu energetikoek ere baldintzatzen dituzte EAEko esportazioak eta importazioak merkatu britainiarrean. Bigarren hiruhilekoan, esportazio energetikoak %91,2 murriztu ziren, iazko 67 milioi euroetatik aurtengo 6 milioi baino gutxiagora. Horren guztiaren ondorioz, salmenta guztiak %15,6 murriztu ziren. Hala ere, pisu handieneko hiru taldeek portaera on samarra izan zuten, adierazitako tasa baino askoz ere jaitsiera txikiagoekin, eta makinen kasuan %9,2ko hazkundea lortu zen.

Garapen-bidean dauden herrialdeetara bidalitako esportazioen analisiak erakusten du erregai mineralen salmentek behera egin dutela (-%88,2), baina emaitza positiboagoak izan direla beste producto talde garrantzitsu batzuetan. Hala, garraio materialaren salmentak %2,8 bakarrik murriztu ziren aurreko urtearen aldean, eta makineriarenak, berriz, %4,4. Halaber, esportazioek gora egin zuten zenbait ataletan, hala nola nekazaritza produktuetan (%43,2), plastikoak eta kautxuan (%1,2) eta gainerako manufakturetan (%8,2).

Txinara bidalitako esportazioetan ez du aparteko eraginik erregaien bilakaerak; aitzitik, makinetan eta garraio materialean zentratzen dira neurri handi batean. Lehenengoek jaitsiera txiki bat izan zuten (-%2,5) eta azkenekoek jaitsiera nabarmenagoa (-%18,4). Hala eta

Los productos energéticos también condicionan las exportaciones e importaciones vascas en el mercado británico. En el segundo trimestre, las exportaciones energéticas se redujeron un 91,2%, al pasar de los 67 millones de euros del año pasado a los menos de 6 millones del presente. Todo ello llevó a que las ventas totales se redujesen un 15,6%. Sin embargo, los tres grupos con mayor peso mostraron un comportamiento relativamente favorable, con descensos muy inferiores a la tasa señalada, incluso con un incremento del 9,2% en el caso de las máquinas.

El análisis de las exportaciones a los países en vías de desarrollo muestra una caída de las ventas de combustibles minerales (-88,2%), pero unos resultados más positivos en otros grupos de productos importantes. Así, las ventas de material de transporte tan solo se redujeron un 2,8% respecto al año anterior, mientras que las de maquinaria lo hicieron un 4,4%. Además, hubo varios apartados que aumentaron sus exportaciones, como los productos agrarios (43,2%), los plásticos y el caucho (1,2%), y el resto de manufacturas (8,2%).

Las exportaciones a China no están afectadas por la evolución de los combustibles, sino que se centran en gran medida en las máquinas y en el material de transporte. Las primeras tuvieron un pequeño descenso (-2,5%) y las últimas una bajada más significativa (-18,4%). Con todo,

guztiz ere, ibilgailu automobilien atalean sartzen diren produktuek dute eskari handiena Asiako merkatu horretan. Beste aldetik, Errusiara egindako esportazioak 17 milioi euro baino gutxiagora murriztu dira, herrialde horri ezarritako zigorren ondorioz. Urte arteko jaitsiera %55,1 izan da. Azkenik, Brasilgo merkatura bideratzen diren hiru partida nagusiek (makinak, metal arruntak eta garraio materiala) %30etik gorako jaitsierak jaso zituzten, eta emaitza, guztira, %31,3ko beherakada izan zen.

Esportazioek bezala, atzerritik ekarritako ondasunen importazioek ere beherakada handia pairatu zuten bigarren hiruhilekoan, %9,9koa kasu honetan, eta guztira 7.078 milioi euroa iritsi ziren. Jaitsieraren zati handi bat erregai mineraletan gertatu zen, eta horien balioa laurden bat murriztu zen, 2022tik izan zuten merkatzearen ondorioz. Beste aldetik, energiaz bestelako ondasunek aurreko urtean lortutako balioaren %4,0 baino ez zuten galdu. Talde horren barruan, kontraste egiten du metal arruntek izan zuten %11,1eko jaitsierak eta makinek eta aparatuak izandako %14,6ko hazkundeak, biak izanik Euskadiko egitura importatzailearen partida nagusiak. Bestalde, adierazi behar da garraio materialaren esportazioek izan duten bilakaera ona ez dela produktu horien importazioen antzeko igoera batean islatu, eta haien hazkundea hutsala izan dela (-0,2%).

los productos englobados en el apartado de vehículos automóviles son los que más demanda tienen en ese mercado asiático. Por otro lado, las exportaciones a Rusia se han reducido a menos de 17 millones de euros, como consecuencia de las sanciones impuestas a ese país. El descenso interanual es del 55,1%. Por último, las tres partidas principales que se destinan al mercado brasileño (máquinas, metales comunes y material de transporte) registraron caídas superiores al 30%, con lo que el resultado total fue de un descenso del 31,3%.

Al igual que las exportaciones, las importaciones de bienes desde el extranjero registraron una gran caída en el segundo trimestre, en este caso del 9,9%, y totalizaron 7.078 millones de euros. Buena parte del descenso se produjo en los combustibles minerales, que redujeron su valor en una cuarta parte, como resultado del abaratamiento que tuvieron respecto a 2022. Por su parte, los bienes no energéticos tan solo perdieron un 4,0% del valor alcanzado el año anterior. Dentro de ese grupo, contrasta el descenso del 11,1% que tuvieron los metales comunes con el incremento del 14,6% registrado por las máquinas y aparatos, siendo ambas las dos partidas principales de la estructura importadora de Euskadi. Por otro lado, hay que señalar que el buen momento que han tenido las exportaciones de material de transporte no se ha reflejado en una subida similar en las importaciones de esos productos, que ha quedado a la par (-0,2%).

Importazioen jatorria	Origen de las importaciones							
	Urte arteko aldakuntza tasak eta mila euro				Tasas de variación interanual y miles de euros			
	2021	2022	2022	2023				
GUZTIRA	34,1	39,7	46,1	22,5	11,1	-9,9	7.078.102	TOTAL
ELGA	28,0	32,5	32,0	17,0	19,3	-3,7	5.002.043	OCDE
Europar Batasuna	28,5	22,3	19,5	10,8	14,8	-0,2	3.176.564	Unión Europea
Frantzia	21,1	21,5	20,7	15,2	10,5	9,6	1.065.547	Francia
Alemania	29,8	21,8	10,7	4,3	-3,0	-19,8	556.594	Alemania
Italia	34,8	15,7	14,1	4,3	7,1	-5,1	341.872	Italia
Erresuma Batua	33,6	42,5	-20,5	3,7	-52,7	-37,3	170.252	Reino Unido
AEB	20,6	207,0	189,9	105,6	41,3	-20,8	451.953	Estados Unidos
ELGATik kanpokoak	48,8	54,5	73,7	34,0	-4,5	-22,0	2.076.059	No OCDE

Iturria:Eustat.

Fuente: Eustat.

